

# ZINEMA ARETOETAN IRAGARKIAK? EZ, ESKERRIK ASKO

Geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari da zinema aretora sartu eta, filma hasi aurretik iragarki publizitarioak tonaka irentsi behar izatea. Non geratzen dira ikus-entzuleen eskubideak? Hego Euskal Herrian gai honekin lotutako legedia zertan den erreparatu dugu.



Gaizka Izagirre

@Gaizka\_Izagirre

Ostirala, 17:55. Donostialdeko merkatal gune ezagun bateko zinema areto batean eserita nago *Logan* filma hasteko itxaroten. Leihatilako ordu-tegi zerrenden arabera, filmak 18:00 hasi beharko luke. 18:02, argiak itzali dira. Iraragarki bat. 18:05 hirugarren spot-a. Altzari, kotte eta lurrin marka guztien erreparaso egin ostean, pantaila belztu eta 18:20 inguru filmaren hasierako tituluak ageri dira. "Sinestezina eta lotsagarria", horiek dira buruan etengabe bueltaka dauzkadan bi adjektiboak. Zenbatetan gertatu zaizue hau? Niri askotan eta nazkatuta nago. Eta kontuz, ez naiz hurrengo hila-beteetan iritsiko diren ekoizpenen trailerrez ari, telebista konbentzionalean normalean ikusten ditugun iragarki horietaz baizik.

Goazen pausoz pauso. Kate horien barruan lanean dabilen lagun batek aitortu

tu zidanez, bezeroek jartzen dituzten erreklamazio eta kexa gehienak gai honekin lotutakoak izaten dira. Jokabide onen kode moduko bat existitzen dela dio eta ezin omen dira iragarkiak txertatu 20 minututik gora. Baina legedira joz gero, ez al dago hau erregulatzen duen araudirik? Niri behintzat, zalantzarria iruditzen zait sarrerengatik 8 euro ordaintzea eta gainera amaigabeko iragarki-zerrendak irenstea.

Zalantzarria bai, baina tamalez, legala. Duela ia urtebete, "Zineman publizitate kode etiko" berri bat sinatu zuten Espainiako Estatuan (aurreko legedia 2001 urtekoa zen). Komunikazio Komertzialaren Autoerregulaziorako Elkarte espainiarraz gain, areto hauen publizitatea kontrolatzen duten agentzia eksklusibetek sinatu zuten akordio hori, Movierecordek, Discinek

eta 014 Mediak. Lege berri horren arabera, "publizitateak leiala, zintzoa eta egiazkoa izan behar du. Ezingo dira pertsonen duintasunaren aurkako irudiak jarri, diskriminatzaileak direnak edo legez kanpoko ekintzak egitera bultzatzen duten mezuak dituztenak". Hiru zatitan banaturiko arau berezien tarte bat ere topatu daiteke. Kodearen barruan ageri diren printzipio batzuk errespetatuz, adingabeentzako filmak baino lehen emititzen dituzten iragarkiek ezingo diete kalte mental, fisiko ala moralik eragin. Edari alkoholikoen iragarkiak erregulatzen dituen atal bat ere ageri da, jakina. Eta azkenik, filmen trailerrei dagokiena. Erabat onartuak daude noski, baina ikustera goazen film konkretu horren kalifikazio bera edo altuagoa izan behar dute. Eta horixe amaitzen da dena. Kodea gorabehe-



ra, iragarkien iraupenari buruz ezertxo ere ez dago idatzita. Eta zentzu horretan, areto barruan gauden kontsumitzaileok pertsona babesgabeak garela uste dut, ezin baitugu katez aldatu edo pantaila itzali.

Badakit hau negozio bat dela, dirua irabazteko daudela eta ahalik eta etekin handiena lortzeko sistema berriak bilatzen dituztela egunero. Primeran, guztiz ulergarria. Gehiago esango nuke, estrategia komertzial horien barruan, badira gutxiago axola zaizkidan “eraso” batzuk –aipaturiko trailerrak esaterako-. Pelikula 18:00etan hasteko programatuta badago eta ni 17:45ean sartzen banaiz, ez zait axola iragarkiak irenstea, tarte huts horietan “entretenezia” eta beraiek, gainera, etekina. Bikain. Denak irabazle. Ikusi nahi ez badituz, ordea, kanpoan itxoingo dut ordua iritsi arte.

» **Telebistako iragarkiak ikustean, trukean “doako” saio bat jasotzen duzu. Zineman sarrera ordaindu baduzu, zergatik ikusi behar duzu 20 minutuko publizitate-tartea filma hasi aurretik?**

Baina 18:00etan nire filma ikusi nahi dut. Krispetengatik ordaintzen badut, trukean krispetak jasotzen ditut. Sarrera ordaintzen badut, trukean filma ikus dezaket. Telebistan iragarkiak ikusten ditudanean, trukean “doako” saio bat eskura dezaket. Zinema aretoan iragarkiak ikustera behartua nagoela? Primeran, utzi orduan dohainik sartzen. Industria zinematografikoari trukean ezer eman gabe, internetik film bat deskargatzen dugunean, delitua dela diote (ez dut kontrakorik esaten eh!). Baina beraiek guri zerbait “hartzen” digutenean, trukean ezertxo ere eman gabe, horri “marketin adimentsua” deitzen diote. Netflix eta Spotify bezalako plataformengatik ordaintzean, iragarkirik gabeko edukiak jasotzen baditugu, zergatik ez gauza bera zinemarekin? ■